

FURIA

Patxi Zubizarreta

Irudiak: Elena Odriozola

Erein, 2007

61 orrialde

haurrentzat

TELEBISTA ZUEN LAGUN HANDIENA

Karlos mutikoaren istorioa kontatzen zaigu Patxi Zubizarretaren azken lan honetan. Baina idazle ordiziarraren beste hainbat lanetan bezala, hemen ere istorioa aitzakia da beste zenbait kontu aipatzeko; Karlosen egoera dugu ardatz, baina horren amarruan irakurleri beste errealitateak erakusten zaizkio.

Furia ipuin hau telefono dei batekin hasten da, amona Erikaren dei batekin, eta berehala ikusi ahal izango dugu Karlosen erreakzioa horren aurrean: haserrealdia amarekin telebista ikusten uzten ez diolako eta kasurik ez amonari. Ahozko tradizioan edo haur txikientzako albumetan bezala, pertsonaiaren karakterizazioa ekintzez bidez jasotzen dugu. Horrela, apur-apurka Karlosen isolamenduaz jabetuko gara, telebistarekiko edo game boy-arekiko dependentziaz; eta horrekin batera gurasoen, irakaslearen eta zaintzailearen jokabidea egoera horren aurrean. “Nire ustez nire lagunik handiena telebista da” (23. or.) dio Karlosek eskolako idazlan batean; eta horixe izango dugu arazoaren errealitate gordina.

Zubizarretak, berriz, hari argumentatibo hori erabiliko du egungo gizartean telebistaren bidez jasotzen ditugun irudien inguruan gogoeta egiteko (Usoa sailean, esaterako, egin izan duen bezala) eta errealitate hori salatzeke: “Ikusi dut, ama, ikusi dut! Irratian esan dutena lehen telebistan ikusi dut. Mutiko bat lotu dute tanke batean, besteek tiro ez egiteko.” (18. or.). Eta oroimena izanik, berehala datorkigu burura soldadu israeldarrek ume palestinarrekin izaniko jokabidea. Are gehiago, aurrerago, beste atal batean, Karlos zapping egiten ari dela “Beste (kate) batean mutil bat hilik daramate, garrasi artean, izara batean bildua. Karlosek aitari esango lioke tankeko mutikoa dela, baina ez du ahoa zabaldu.” (50. or.) irakurtzen dugunean.

Izan ere jauziak daude gertakarien artean; amona Erikaren deia gertatzen denetik amaierara arte hainbat egun pasa dira, baina zazpi kapitulutuan gertakariak, komentarioak, erreferentziak... testu guztiari batasuna ematen diote. Amaiera, gainera, amonari eginiko dei batekin, ziklo baten itxiera balitz bezala agertzen zaigularik.

Egitura, ordea, ez da ziklikoa. Amaierako Karlos ez da hasierakoa. Amaieran Karlosek amonari deitzen baitio telefonoz, eta musu handi bat bidali pozaren pozez.

Patxi Zubizarretaren ofizioa agerian dugu idazlan honetan; ideiak lotzeko trebezia, zatikako narrazioa “batzekoa” (neurri batean *Barrikadak* nobela ederrean egin zuenaren antzera) edo hitz gutxitan (Karlosen istorioa oso arin eta azkar irakurtzen da), deskribapen gutxi erabiliz, istorioa, tonua, erritmoa... lortzeko abilitadea: “Jolasean dabilzala esan daiteke, baina biak ala biak oso serio daude, gorri-gorri eta atezuan.” (8. or.). Irakurleak ez du hitz gehiago behar ama-semearen arteko tentsioa, haserrea eta borroka irudikatzeke.

Elena Odriozolaren ilustrazioek, gainera, aberastu egiten dute Zubizarretaren idazkia. Arestian aipaturiko haserrealdiaren irudia, esaterako, oso adierazgarria da: lau orritan zezen gorputza eta amaren burua duen irudia. Irakurlearen espektatibekin jolastuz, irakurlearen harreran ustekabea eta atsegina sortuz, ilustrazioek aberastu egiten dute liburua. Idatzitakoa osatu eta ulertzen laguntzeaz gain (Karlosen irudi batzuk oso lortuak dira arlo horretan), beste irakurketa bat gehiago eskaintzen dute, istorioa sentitzeko beste era berri bat eman.

Ez gaitu, beraz, harritu behar liburu hau erdaraz ere kaleratu izanak. Azken urteotan gure idazle eta ilustratzaile batzuk erakusten ari diren kalitatearen beste froga bat baita.

Xabier Etxaniz Erle (2007ko ekainaren 28an idatzia)